

**BOISE, IDAHO**  
**URTEAREN ZEHAR 18-N IGANDEA/ 18<sup>TH</sup> SUNDAY IN ORDINARY TIME (B)**  
**LOIOLAKO SAN INAZIO EGUNA/SAINT IGNATIUS OF LOYOLA**  
**ABUZTUAK 1/AUGUST 1<sup>ST</sup>**  
**MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS**

**HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG**

|  |  |
|--|--|
| <p><b>Bihotz batez</b></p> <p>Bihotz batez, elkaturik,<br/>Zugana gatoz Jauna,<br/>Zugana gatoz Jauna.</p> <p><b>Emaguzu zure argi,<br/>grazi ta maitasuna.<br/>Entzun arren, Jauna.</b></p> <p>Aldarean aurkitzen da<br/>kristau alaitasuna,<br/>kristau alaitasuna.<br/><b>Emaguzu...</b></p> <p>Gurutzean ta aldarean<br/>daukagu osasuna,<br/>daukagu osasuna.<br/><b>emaguzu...</b></p> | <p><b>With One Heart</b></p> <p>With one heart, gathered<br/>We come to you Lord<br/>We come to you Lord</p> <p><b>Grant us your light<br/>Grace and love.<br/>Hear us, Lord.</b></p> <p>On the altar we find<br/>Christian Joy<br/>Christian Joy.<br/><b>Grant us...</b></p> <p>On the Cross and the Altar<br/>We find salvation,<br/>We find Salvation.<br/><b>Grant us...</b></p> |
|--|--|

**HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES**

|   |  |
|---|--|
| <p>† Aitaren, eta + Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.<br/>         ◎ Amen.<br/> <b>AGURRA</b><br/>         † Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.<br/>         ◎ Eta zure espirituarekin.</p> | <p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit.<br/>         ◎ Amen.<br/> <b>Greeting</b><br/>         † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all.<br/>         ◎ And with your spirit.</p> |
|---|--|

**DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE**

|  |  |
|--|--|
| <p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitzan.<br/>         † Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.</p> | <p>† Brethren (brothers and sisters), let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> |
|--|--|

|   |   |
|---|---|
| <p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† <b>Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.</b></p> <p>⊙ Kristo, erruki.</p> <p>† <b>Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.</b></p> <p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† <b>Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.</b></p> <p>⊙ Amen.</p> | <p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ <b>Lord, have mercy.</b></p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy.</p> <p>⊙ <b>Christ, have mercy.</b></p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ <b>Lord, have mercy.</b></p> <p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.</p> <p>⊙ <b>Amen.</b></p> |
|---|---|

### **AINZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST**

|   |  |
|---|--|
| <p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. ⊙ <b>Amen.</b></p> | <p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father.</p> <p>⊙ <b>Amen.</b></p> |
|---|--|

### **MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER**

|   |  |
|---|--|
| <p>† <b>Egin Dezagun Otoitz</b></p> <p>Zatoz, Jauna, zure zerbitzariei laguntzen, eta agertu beti zure bihotz ona, erreguka gaudenoi; Egile eta Nagusi aitortzen zaituenez gero, emaiuzu bizi berria, eta zaindu itzazu beti bizi berri horretan Loiolako Inazio Saindua zaindu zenuen bezala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Jaungoiko eta Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>⊙ Amen</p> | <p>† <b>Let us Pray</b></p> <p>Draw near to your servants, O Lord, and answer their prayers with unceasing kindness, that, for those who glory in you as their Creator and guide, you may restore what you have created and keep safe what you have restored, as You did with Ignatius of Loyola. Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, forever and ever.</p> <p>⊙ <b>Amen.</b></p> |
|---|--|

**HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD**  
**LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING**  
**Irteera Liburua/ Ex 16:2-4,12-15**

**Irteera Liburutik**

2 Han, basamortuan, elkarte osoa marmarrean hasi zen Moises eta Aaronen aurka, 3 esanez: «Hobe genukeen Jaunak Egipton hilarazi bagintu, haragi-eltze inguruan eseri eta ase arte jaten genuenean! Zuek, ordea, gu denok goseak hiltzera ekarri gaituzue basamortu honetara». 4 Orduan, Jaunak esan zion Moisesi: «Janaria eroraraziko dizuet euri gisa zerutik. Herria egunean egunekoa biltzera aterako da. Probatu egin nahi dut, ea nire esanera dabilen ala ez. 12 «Aditu dut israeldarren marmarra. Esaiezu: Ilunabarrean okela jango duzue, eta bihar goizean ogiz aseko zarete. Honela jakingo duzue ni naizela Jauna, zuen Jainkoa». 13 Arratsaldean, galeperrak heldu ziren eta kanpaleku osoa estali zuten; biharamun goizean, ihintz-geruza azaldu zen kanpaleku inguruan. 14 Ihintza desagertu zenean, antzigarraren itxurako zerbait, xehea eta garautsua, gelditu zen lur gainean. 15 Hura ikustean, israeldarrek honela ziotzoten elkarri: «Zer da hau?» Ez baitzekiten zer zen. Moisesek esan zien: «Jaunak janarizat ematen dizuen ogia da.

- Jaunak esana!
- Eskerrak zuri Jauna!

**From the Book of Exodus**

The whole Israelite community grumbled against Moses and Aaron. The Israelites said to them, “Would that we had died at the LORD’s hand in the land of Egypt, as we sat by our fleshpots and ate our fill of bread! But you had to lead us into this desert to make the whole community die of famine!” Then the LORD said to Moses, “I will now rain down bread from heaven for you. Each day the people are to go out and gather their daily portion; thus will I test them, to see whether they follow my instructions or not. “I have heard the grumbling of the Israelites. Tell them: In the evening twilight you shall eat flesh, and in the morning you shall have your fill of bread, so that you may know that I, the LORD, am your God.” In the evening quail came up and covered the camp. In the morning a dew lay all about the camp, and when the dew evaporated, there on the surface of the desert were fine flakes like hoarfrost on the ground. On seeing it, the Israelites asked one another, “What is this?” for they did not know what it was. But Moses told them, “This is the bread that the LORD has given you to eat.”

- The Word of the Lord!
- Thanks be to God!

**ERANTZUN-SALMOA/Psalm 78:3-4,23-24,25,54**

**R. Jaunak isuri zien zerutik ogia.**

Guk entzun eta jakindakoak, gurasoek kontatu zigutena, Jaunaren egintza goresgarriak, haren garaipena eta egin dituen mirariak ez dizkiegu ezkutatuko geure haurrei, baizik eta datorren belaunaldiari kontatuko. **R.**

Orduan, goi-lainoei agindua eman eta zeruko ateak ireki zituen; mana isuri zien janari, zeruko garia eman. **R.**

**R. The Lord gave them bread from heaven.**

What we have heard and know, and what our fathers have declared to us, We will declare to the generation to come the glorious deeds of the LORD and his strength and the wonders that he wrought. **R.**

He commanded the skies above and opened the doors of heaven; he rained manna upon them for food and gave them heavenly bread. **R.**

|  |  |
|--|--|
| Aingeruen ogia jan zuten gizakiek,<br>Jainkoak janariz ase zituen.<br>Bere lurralde santura eraman zituen,<br>berak eskuratutako mendiraino. <b>R.</b> | Man ate the bread of angels,<br>food he sent them in abundance.<br>And he brought them to his holy land,<br>to the mountains his right hand had won. <b>R.</b> |
|--|--|

## BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

Efesoarrei/ Eph 4:17,20-24

|   |  |
|---|--|
| <p><b>San Paulo Apostoluak Efesoarrei</b></p> <p>Senideok:</p> <p>17 Hona, bada, zer esaten eta zinez eskatzen dizuedan Jaunaren izenean: ez zaitez tuela bizi sinesgabeak bizi diren bezala; buruarinak dira. 20 Ez da hori Kristo ezagutzean zuek ikasi duzuen. 21 Entzun duzue, izan ere, hartaz hitz egiten eta, Jesusi dagokion egiazko irakaspenaren arabera, hau ikasi duzue: 22 alde batetik, zuen lehengo bizierari uko egin eta giza izaera zaharra, grina engainagarrien eraginez hondatua, erantzi egin behar duzuela; 23 eta, bestetik, zeuen gogo-bihotzak berritu 24 eta giza izaera berria, Jainkoaren irudira sortua, jantzi behar duzuela, Jesusen egiaren arabera biziera zuzena eta santua eramateko.</p> <p><input type="checkbox"/> <b>Jaunak esana!</b><br/><input checked="" type="checkbox"/> Eskerrak zuri Jauna!</p> | <p><b>From the Letter of Saint Paul to the Ephesians</b></p> <p>Brothers and sisters:</p> <p>I declare and testify in the Lord that you must no longer live as the Gentiles do, in the futility of their minds; that is not how you learned Christ, assuming that you have heard of him and were taught in him, as truth is in Jesus, that you should put away the old self of your former way of life, corrupted through deceitful desires, and be renewed in the spirit of your minds, and put on the new self, created in God's way in righteousness and holiness of truth.</p> <p><input type="checkbox"/> The Word of the Lord!<br/><input checked="" type="checkbox"/> Thanks be to God!</p> |
|---|--|

## ALELUIA-ALLELUIA

|  |  |
|--|--|
| <p><b>R. Aleluia, alleluia.</b><br/>Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, baizik Jainkoak esaten duenetik bizi da.<br/><b>R. Aleluia, aleluia.</b></p> | <p><b>R. Alleluia, alleluia.</b><br/>One does not live on bread alone, but by every word that comes forth from the mouth of God.<br/><b>R. Alleluia, alleluia.</b></p> |
|--|--|

## EBANJELIOA-GOSPEL

|   |  |
|---|--|
| <p>† <b>Jauna zuekin</b><br/><input checked="" type="checkbox"/> Eta zure espirituarekin<br/>† <b>Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik</b><br/><input checked="" type="checkbox"/> Aintza Zuri, Jauna<br/>† <b>Jaunak esana</b><br/><input checked="" type="checkbox"/> Eskerrak Zuri, Jauna</p> | <p>† The Lord be with you<br/><input checked="" type="checkbox"/> <b>And with your spirit</b><br/>† A Reading from the Holy Gospel according to <b>N</b><br/><input checked="" type="checkbox"/> <b>Glory to you, O Lord.</b><br/>† The Gospel of the Lord.<br/><input checked="" type="checkbox"/> <b>Praise to you, Lord Jesus Christ.</b></p> |
|---|--|

## Ebanjelioa San Joanen Liburutik/Jn 6:24-35

24 Han ez zeudela ez Jesus, ez ikasleak konturatzean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. 25 Aintziraz beste aldean aurkitu eta esan zioten: –Maisu, noiz etorri zara hona? 26 Jesusek erantzun zien: –Bene-benetan diotsuet: Nire bila zabilzate, ez ikusi dituzuen mirarizko seinaleengatik, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. 27 Ahalegin zaitezte, ez galtzen den janariagatik, baizik eta irauten eta betiko bizia ematen duen janariagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari egin duenak. 28 Orduan, galdetu zioten: –Zer egin behar dugu Jainkoak nahi duena egiteko? 29 Jesusek erantzun zien: –Hauxe da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenarengan zuek sinestea. 30 Galdetu zioten, orduan: –Zer seinale ematen diguzu, bada, guk ikusi eta zuri sinesteko? Zer egiten duzu? 31 Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: *Zeruko ogia eman zien jaten.* 32 Jesusek erantzun zien: –Bene-benetan diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia, baizik eta nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia. 33 Zeren Jainkoaren ogia, zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona da. 34 Orduan, eskatu zioten: –Jauna, emaguzu beti ogi horretatik. 35 Jesusek erantzun zien: –Neu naiz bizia ematen duen ogia; niregana hurbiltzen dena ez da, ez, sekula gose izango, eta niregan sinesten duena ez da behin ere egarri izango.

□ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak zuri Jauna!

When the crowd saw that neither Jesus nor his disciples were there, they themselves got into boats and came to Capernaum looking for Jesus. And when they found him across the sea they said to him, “Rabbi, when did you get here?” Jesus answered them and said, “Amen, amen, I say to you, you are looking for me not because you saw signs but because you ate the loaves and were filled. Do not work for food that perishes but for the food that endures for eternal life, which the Son of Man will give you. For on him the Father, God, has set his seal.” So they said to him, “What can we do to accomplish the works of God?” Jesus answered and said to them, “This is the work of God, that you believe in the one he sent.” So they said to him, “What sign can you do, that we may see and believe in you? What can you do? Our ancestors ate manna in the desert, as it is written: He gave them bread from heaven to eat.” So Jesus said to them, “Amen, amen, I say to you, it was not Moses who gave the bread from heaven; my Father gives you the true bread from heaven. For the bread of God is that which comes down from heaven and gives life to the world.” So they said to him, “Sir, give us this bread always.” Jesus said to them, “I am the bread of life; whoever comes to me will never hunger, and whoever believes in me will never thirst.”

□ **The Gospel of the Lord.**

☉ Praise to you, Lord Jesus Christ.

## HOMILIA-HOMILY

### SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

#### **APOSTOLUEN AITORMENA**

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

† **Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztiduna**, zerulurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekalduta; gurutzetan iltzatuta, hila eta hobiratuta izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin

#### **APOSTLES' CREED**

† **I believe in God, the Father almighty,**

† ☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father

aldean jarriarik dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

Sinisten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikua, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ **Amen.**

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

almighty; from there he will come to judge the living and the dead.

I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ **Amen.**

## **JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL**

† Brothers and Sisters: Moved by the power of the Holy Spirit let us pray to God who is rich in mercy:

1. For the Church: May the Church be a witness of God's Love in this world, where lack of faith seems to reign. **We pray to the Lord.**
2. For all those who carry the decision-making responsibilities in the world, that they may look at the wellbeing of the most in need. **We pray to the Lord.**
3. For those in dire financial difficulties, and the ones living in loneliness; that they may find consolation. **We pray to the Lord.**
4. For us who live too tied up to the things of the world: that we may deepen in the experience of God's love to each one of us. **We pray to the Lord.**
5. We pray for all those who are sick, that they recover and re-gain their health. We pray also for all members who are working on the front line during this pandemic. Keep them and their families safe and healthy. **We pray to the Lord.**
6. We pray for everyone who has lost their job, who has died, or has been negatively affected by the pandemic in our world. **We pray to the Lord.**
7. For all of us here celebrating the feast of our Basque traditions in **Boise**; that while using the thing of this world we may aspire at the things in heaven. **We pray to the Lord.**
8. For our departed brothers and sisters during this past year, that the Lord may grant them eternal rest and peace and comfort to their families. **We pray to the Lord.**

† Lord God, we know that it is You who saves us, and that our actions add nothing to your greatness. Take good care of us your children. We ask you through Christ our Lord.

☉ Amen.

## **EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY**

### **ESKAITZA ABESTIA/OFFERTORY SONG**

**ESKERRIK ASKO, JAUNA bihotz-bihotzetik; Eskerrik asko Jauna, orain eta beti.**

1. Eskerrik asko, Jauna, gudan zaudelako eta zure biziak bizi garelako.

**Thanks so much, Lord, from the bottom of my heart; Thanks now and for evermore.**

1. Thanks, Lord, because you inhabit in us, and because we live out from your very life.

2. Zure antzera, Jauna, gaitezela ibili  
zure antzera, Jauna, on eginez beti.

2. That we may live like you, and like  
you we may go around doing good.

### OPARI ESKAINTZA-OFFERTORY

† **Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa:**  
zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri  
dizugun ogi hau, lurraren indarrak eta gizonaren  
lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.

☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

† **Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa:**  
zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri  
dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta  
gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko  
zorionaren edari.

☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

† **Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean,**  
Eliza osoaren oparia Jaungoikoari  
eskaintzerakoan.

☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.

† Blessed are you, Lord God of all creation, for  
through your goodness we have received the bread we  
offer you: fruit of the earth and work of human hands,  
it will become for us the bread of life.

☉ **Blessed be God for ever.**

† Blessed are you, Lord God of all creation, for  
through your goodness we have received the wine we  
offer you: fruit of the vine and work of human hands;  
it will become our spiritual drink.

☉ **Blessed be God for ever.**

† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours  
may be acceptable to God, the almighty Father.

☉ **May the Lord accept the sacrifice at your hands  
for the praise and glory of his name, for our good  
and the good of all his holy Church.**

### OPARIGAIEN GAINENKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

† Jainko guztiz ona, santu egin itzazu dohain hauek,  
eta, Eukaristia oparia onarturik, egin gaitzazu gu ere  
betiko opari, Loiolako Inazio egin zenuen bezala.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

☉ Amen.

† Graciously sanctify these gifts, O Lord, we pray,  
and, accepting the oblation of this spiritual sacrifice,  
make of us an eternal offering to you as you did with  
Ignatius of Loyola.

Through Christ our Lord.

☉ Amen.

### EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

† **Jauna zuekin**

☉ Eta zure espirituarekin

† **Gora bihotzak**

☉ Jaunagan dauzkagu

† **Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari**

☉ Egoki da eta zuzen

† **Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri**  
eskerrak emotea, Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri,  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

**Berak, gure artean jaioaz, gizon-emakume barri**  
egin gaitu; gurutzean hilez, gure bekatuak ezereztu  
ditu; hilen artetik biztuz, betiko bizia emon deusku,

† The Lord be with you.

☉ **And with your spirit.**

† Lift up your hearts.

☉ **We lift them up to the Lord.**

† Let us give thanks to the Lord our God.

☉ **It is right and just.**

† It is truly right and just, our duty and our salvation,  
always and everywhere to give you thanks, Lord, holy  
Father, almighty and eternal God, through Christ our  
Lord.

For by his birth he brought renewal to humanity's  
fallen state, and by his suffering, cancelled out our  
sins; by his rising from the dead, he has opened the  
way to eternal life, and by ascending to you, O Father,

eta Zugana ihoaz, Aita guztiz santu, zeruko atepak zabaldu dizkigu.

**Horregatik, aingeru ta santu guztiekin batean, beti ta beti abesten dizugu goratzarre hau.**

☉ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure diztirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!

he has unlocked the gates of heaven.

And so, with the company of Angels and Saints, we sing the hymn of your praise, as without end we acclaim:

☉ **Holy, Holy, Holy Lord God of hosts.**

**Heaven and earth are full of your glory.**

**Hosanna in the highest.**

**Blessed is he who comes in the name of the Lord.**

**Hosanna in the highest.**

## **EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II**

† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezzen.

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihola, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK:  
HAU NIRE GORPUTZA DA-TA, ZUENTZAT  
EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTAZUE ETA EDAN  
GUZTIOK HONTATIK:  
HAU NIRE ODOLAREN KALIZA DA-TA,  
ITUN BERRI ETA BETIKOAREN ODOLA,  
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT  
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.  
EGIZUE AU NIRE OROIGARRI**

† Hau da sinesmenaren misterioa.

☉ **Hil eta piztu zarala, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!**

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratu, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT,  
FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE  
GIVEN UP FOR YOU**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK FROM  
IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF MY  
BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND  
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE  
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY  
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.  
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† The mystery of faith.

☉ **We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.**

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.



† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, bere senar Jose santuarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorots zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan

☉ **Amen.**

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ **Amen.**

## JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† **Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:**

†☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurlean ere.

Emaiguzu gaur egun hontako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.

† **Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaitzazu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela**

☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.

† **At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:**

†☉ **Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.**

**Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation, but deliver us from evil.**

† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.

☉ **For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.**

## PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

|   |   |
|---|---|
| <p>† <b>Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiozu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.</b></p> <p>☉ Amen.</p> <p>† <b>Jaunaren bakea beti zuekin.</b></p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† <b>Emaiozue bakea elkarri.</b></p> <p>☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.</p> <p>Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.</p> <p>Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaioguz bakea.</p> <p>† <b>Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</b></p> <p>☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† <b>Kristoren Gorputza.</b></p> <p>☉ Amen.</p> | <p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>☉ <b>Amen.</b></p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>☉ <b>And with your spirit.</b></p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p> <p>☉ <b>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</b></p> <p><b>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</b></p> <p><b>Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</b></p> <p>† Behold the Lamb of God, behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>☉ <b>Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</b></p> <p>† The body of Christ.</p> <p>☉ <b>Amen.</b></p> |
|---|---|

## JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION SONG

|   |   |
|---|---|
| <p><b>JESUS MAITEA ZAN</b></p> <p>Jesus amodioz bihotza gaindian<br/>Zein miragarri zen azken afarian<br/>Guretzat zelarik hiltzerat abian<br/>gerokotz ere zen gurekin nahian</p> <p><b>(REF) Adora dezagun menderen mendetan,<br/>Jesus Jainko Jauna sakramendu huntan.</b></p> <p>Apostolueri erraiten diote:<br/>«Ni gaur saldua naiz, bihar hilen naute.<br/>Aitarenganako denbora zait bethe,<br/>hona orain zenbat zaituztedan maite.»</p> <p>Ogia harturik erran du Jainkoak:<br/>“Hau da nire Gorputz, zuek jatekoa”.<br/>Orobat harturik ontzian ardoa:</p> | <p><b>JESUS WAS LOVING</b></p> <p>During Last Super Jesus loved us,<br/>He offered himself in bread and wine,<br/>He gave himself totally for us to death<br/>Cause love had his heart prisoner.</p> <p><b>(REF) Let us always adore Christ the Lord,<br/>Who is with us in this sacrament.</b></p> <p>With pain he told his disciples:<br/>“today I will be sold, tomorrow will die.<br/>My time to the Father is accomplished,<br/>Look now how much I love you.”</p> <p>Taking bread said the Lord,<br/>“This is my Body, for you to eat.<br/>Same taking the chalice with wine:</p> |
|---|---|

|                                 |                                  |
|---------------------------------|----------------------------------|
| “Hau da nire Odol ixuritzekoa”. | This is my blood, shed for you.” |
|---------------------------------|----------------------------------|

### JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION


|   |  |
|---|--|
| <p>† Zaindu egin itzazu beti Jauna, zeruko dohainez berritu dituzun zure seme alaba hauek, eta honela indar berritzen gaituzunok, eraman gaitzazu betiko salbamenera, Loiolako Inazioarekin batean. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>☉ Amen.</p> | <p>† Accompany with constant protection, O Lord, those you renew with these heavenly gifts and, in your never-failing care for them, make them worthy of eternal redemption together with Ignatius of Loyola. Through Christ our Lord</p> <p>☉ Amen.</p> |
|---|--|

### BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

|  |   |
|--|---|
| <p>† <b>Jauna zuekin.</b></p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† <b>Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak.</b></p> <p>☉ Amen.</p> <p>† <b>Zoazte Jaunaren bakean.</b></p> <p>☉ Eskerrak Jainkoari.</p> | <p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ <b>And with your spirit.</b></p> <p>† May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit.</p> <p>☉ <b>Amen.</b></p> <p>† Go forth, the Mass is ended.</p> <p>☉ <b>Thanks be to God.</b></p> |
|--|---|

### SAN INAZIOREN MARTXA/MARCH OF SAINT IGNATIUS

|  |   |
|--|---|
| <p>Inazio, gure Patroi haundia<br/>         Jesusen Konpainia,<br/>         fundatu eta duzu armatu,<br/>         ez da, ez, etsairik jarriko zaizunik<br/>         inolaz aurrean gaurko egunean,<br/>         naiz betor Luzifer deabrua utzirik infernua.<br/>         Zure soldaduak dirade aingeruak,<br/>         zure gidaria da Jesus haundia;<br/>         garaitu ditu zure Konpainiak, etsaiak.<br/>         Ez dauka fedeak, ez kristau Nereak,<br/>         ez dauka beldurrik inongo aldetik.<br/>         Inazio or dago, beti ernai dago,<br/>         armetan jarria dauka Konpainia,<br/>         txispaz armaturik, bandera zabalik,<br/>         gau ta egun gu guztiok pakea dezagun,<br/>         beti gau eta egun.</p> | <p>Ignatius, our great Patron Saint,<br/>         The Company of Jesus,<br/>         You did establish and armed.<br/>         There is no enemy that will confront you,<br/>         Never in front of you in today’s world,<br/>         Even if Lucifer were to come from hell.<br/>         Your soldiers are like angels,<br/>         Your guide is the great Jesus;<br/>         Your company has conquered the enemies.<br/>         Nor the faith, neither my Christian life<br/>         Has no fear of any kind and place.<br/>         Ignatius is there, always alert,<br/>         His Company well-armed,<br/>         Armed with sparks, and the flag open,<br/>         Day and night, so we all have peace,<br/>         Always, day and night.</p> |
|--|---|



***Festa Alai bat Opaz!***  
***Wishing you all a Happy Feast Day***



***Pesta Alai bat Opaz!***  
***Wishing you all a Happy Feast Day***

**KIMBERLY ARRUBARRENA 1972-2020**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**TONI ACHABAL 1939-2020**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**JAMES CHISHALL ANDERSON 1926-2021**



*Goian Begol/May He Rest in Peace*



**MARIA TEODORA ASEGUINOLAZA -2021**




***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**JUANITA ONAINDIA ABAUNZA**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**JUSTIN ANCHUSTEGUI 1960 - 2021**



***Goian Rego/May He Rest in Peace***

**MELVIN "MEL" WAYNE BENGOCHEA**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**RUTH BICANDI 1955-2020**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**MARÍA CARMEN BIDABURU 1930-2020**



*Goian Begol/May She Rest in Peace*

**GARRETT BUMGARDNER 2003 - 2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**MARVIN CLAUSEN 1924 – 2021**



***Goian Rego/May He Rest in Peace***



**DENISE FINELY 1963 – 2021**




***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**MARK CHARLES (SOLOAGA) FRIBERG, M.D. 1970-2020**



***Goian Begol/May Se Rest in Peace***

**BENEDICTO GOITLANDIA 1933 - 2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**CECIL JAYO 1925 - 2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**DAVID K LACHIONDO 1947-2020**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**SABIN LANDALUCE JR. 1949 – 2021**




***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**FRANCISCA HORMAECHEA LEJARDI 1927-2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**GARY RAYMOND MURGOITIO 1958 – 2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***



**ELOISE CIARSOLO PARKER 1953 – 2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**ROSANNE MARIE SARRIUGARTE SCHODDE**

**1958 – 2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**DAVID TERRELL (BIDEGANETA) 1961 - 2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**RICHARD DOMINGO UBERUAGA 1950 – 2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**JOHN UGARRIZA 1938 – 2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**VICKI AGUIRRE 1955 - 2020**

***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**LOIS SOLOAGA-RUSH 1947 - 2021**

***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**LAZARO URQUILAGA 1943 - 2021**

***Goian Begol/May He Rest in Peace***

## URTEKO HEMEZORTZIGARREN IGANDEA B

### Lehen irakurgaia

*(Mana desertuko janaria)*

### Jalgitza liburutik 16, 2-4. 12-15

**2** Basamortuan, Izraeldarren elkarte osoa marmarikan hasi zen Moisen eta Aaronen kontra, erranez: **3** “Ai, hobeko zen, Jaunaren eskuz hil bagine Egiptoko lurtean, eltze beteka haragiak aitzinean jartzen ginenean, ogia asetzeraino jaten ginuenean! Zuek basamortu huntarat ekarri gaituzue, elkarte osoa gosez hiltzera.” **4** Jaunak erran zion Moisi: “Huna, zerutik ogi-erauntsi bat eginaraziko dutala. Herria egunean egunekoa biltzera aterako da, eta horrela frogatuko dut, ea nere legearen arabera dabilan, ala ez. **12** Entzun ditut Izraeldarren erasiak. Erranen diozute: Arratsaldean haragia janen duzue, eta bihar goizean ogiz aseko zirezte. Orduan jakinen duzue ni Jauna, zuen Jainkoa naizela.” **13** Arratsaldean kailak etorri ziren, eta kanpaleku osoa estali zuten; eta biharamun-goizean ihintzez estalia zagon inguru guzia. **14** Ihintza airatu zenean, bazen lur gainean azal mehe bat, izotza bezalakoa. **15** Hura ikustean, elkarri galdezka hasi ziren Izraeldarrak: “Man hu? (erran nahi baita: Zer da hau?)”, ez baitzakiten zer zen. Moisek erran zioten: “Hori da Jaunak janaritzat emaiten dautzuen ogia.”

### Jaunak errana!

**Eskerrak Zuri, Jauna!**

### Erantzun Salmoa 78 (77)

**Leloa: Zuk eman beti, Jauna, guri Zerutik jautsi ogi hori!**

Gogoan atxik aditu eta ikasiak,  
Aitzinekoek guri kondatu zer guziak.  
Semeri erran Jaunak merezi goresmenak:  
Haren indarrak, miragarriko haren lanak.

Erran du Jaunak hedoi gaitzeri diton higi:  
Zabalik ditu zeruko bortak han ideki.  
Haz diton denak handik tzirtzirka mana jalgi,  
Eta nasaiki eman diote zeru-ogi.

Azkar ogitik gizonak janik, azkar doa:  
Ausarkian du Jaunak igortzen jatekoa.  
Hek hola ditu sarraraziak lur sainduan,  
Bere eskuak beretu duen mendi hortan.

### Bigarren irakurgaia

*(Gizon berria)*

### **Jondoni Paulok Efesako girixtinoeri 4, 17.20-24**

Haurrideak,

**17** Huna zer erraiten eta zinez aitortzen dautzuetan Jaunaren izenean: ez zaitez teldi bizi paganoak bizi diren bezala: buru arinak dira. **20** Ez da hori Kristo ezagutzean zuek ikasi duzuen, **21** Hura bera balinbada bederen iragarri eta irakatsi dautzuetena, Jesusen baitan den egiaren arabera. **22** Beraz, zuen lehengo bizi moldeari uko eginik, kenazue zuen baitan den giza izaite zaharra gutizia tzar lilluragarritz usteldua. **23** Zuen gogo bihotzak berri behar dituzue, **24** eta jantzi giza izaite berria, Jainkoaren idurirat egiaren baitan saildu eta zuzen kreatua..

**Jaunak errana!**

**Eskerrak Zuri, Jauna!**

### **Ebanjelioa**

**Alleluia, alleluia**

Jaunak hazi du bere herria desertuan eta zeruko ogiz ase.

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 6, 24-35**

**24** Jendeak ikusia zuen ez Jesus eta ez dizipuluak ez zirela ur bazterrean. Orduan untzietarat igan eta Kafarnaumerat joan ziren, Jesusen bila. **25** Itsasoz bestaldean aurkitu zutenean, erran zioten: “ Irakasle jauna, noiz etorri zira hunat?” **26** Jesusek ihardetsi zioten: “Egiaz-egiaz diozuet: nere bila zabiltzate, ez ezaugarriak ikusi ditzuzelakotz, bainan ogia jan eta ase baitzirezte. **27** Lan egizue, ez galtzen den janariagatik, bainan betiko biziraino irauten duen janariagatik. Hori Gizonaren Semeak emanen dautzue, Seme hori Jainko Aitak bere zigiluz markatu baitu.” **28** Orduan erran zioten: “Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duenaren egiteko?” Jesusek ihardetsi zioten: **29** “Hau da Jainkoak nahi duen egintza: harek igorri duenaren baitan sinets dezazuen.” **30** Heiek orduan: “Zer ezaugarri egiten duzu, guk ikusi eta zure baitan sinets dezagun? Zer egiten duzu? **31** Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan; Liburu Sailduak dion bezala: Zerutikako ogia eman zioten jatera.” **32** Jesusek ihardetsi: “Egiaz-egiaz diozuet: ez zaitzuen Moisek eman zerutikako ogia, nere Aitak emaiten dautzue zerutikako egiazko ogia. **33** Jainkoaren ogia , zerutik jautsi eta munduari bizia emaiten diona da.” **34** Heiek orduan: “ Jauna, emaguzu beti ogi hortarik.” **35** Jesusek ihardetsi zioten: “ Ni naiz biziaren ogia. Nereganat datorrena ez da gosetuko; nere baitan sinesten duena ez da sekulan egarrituko.”

**Jaunak errana!**

**Eskerrak Zuri, Jauna!**



